

Bilbao Ekintzako presidentearen **ebazpena**. Honen bidez, izangaiak onartu eta behin betiko baztertzen dira, eta behin bakarrik eta lehiaketa-oposizio sistemaren bidez deitutako egonkortzeko hautaketa-prozesu bereziko lehenengo ariketa noiz egingo den adierazten da. Prozesu berezi hau Inbertsioak Erakartzeko Teknikariaren lanpostu bat betetzeko deitu zen, derrigorrezko da 3. hizkuntza-eskakizuna izatea eta A teknikariaren kategoriari dagokion ordainsaria duena.

Bilbao Ekintza EPELeke lehendakariak honako Ebazpen hau jaulki du:

Lehenengoa.- Amaitu da behin bakarrik deitutako egonkortzeko hautaketa-prozesu berezian parte hartzeko onartuak eta baztertuak izan diren pertsonen behin-behineko zerrenda onartzearen aurkako akatsak zuzentzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea amaierarekin, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legean aurreikusitako oposizio-lehiaketaren sistemaren bidez, Bilbao Ekintzako plantillan hutsik dauden lanpostuak lan-kontratuko langile finko gisa kontratatzeko, 2022 Bilbao Ekintza egonkortzeko Enplegu Publikoaren Eskaintzari dagokionez:

- Inbertsioak erakartzeko teknikariaren lanpostu bat, nahitaezko 3. hizkuntza-eskakizunarekin eta A teknikariaren kategoriari dagokion ordainsaria duena. ESP. BE 2022-EST-0003.

Aipatu den deialdirako hautaketa-prozesuan onartutakoen eta baztertutakoen behin-betiko zerrenda onartzea xedatzen da. Zerrenda hori ebazpen honen eranskin gisa ematen da.

Bigarrena.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-betiko eta eranskin gisa ematen den zerrenda. Baztertutakoen kasuan, baztertzeko arrazoia zehaztuko da.

Hirugarrena.- Epaimahaia izendatzea. IVAP euskara-proba baloratzeko hautaketa-prozesuko epaimahaiko kideen izendapena argitaratzea. Orduan, aldatzen da 2023ko abenduaren 22ko Ebazpenaren bidez argitaratutako hasierako osaera (BOB, 10. zk., 2024ko urtarrilaren 15ekoa), epaimahaia honela osatuko da:

PRESIDENTEA:

ALEJANDRO TARAMONA BERECIARTUA jauna, Bilbao Ekintzako Zerbitzu Orokorren Arloko arduraduna eta, ordezko gisa, JOSÉ MARÍA ESCOLÁSTICO SÁNCHEZ jauna, Bilboko Udaleko Udal Etxebizitzen zuzendariorde operatiboa eta juridikoa.

KIDEAK:

MARÍA JESÚS DEL BLANCO PATINO andrea, Bilbao Ekintzako Hiri-Garapen arloko Zuzendaria, eta EVA MARÍA SALCEDO PÉREZ DE OBANOS andrea, Bilbao Ekintzako Invest in Bilbao unitateko arduraduna eta, ordezko gisa, JESUS MANZANO GARCÍA jauna, Bilbao Ekintzako Invest in Bilbao unitateko teknikaria eta OIHANA EIZMENDI SASIAIN andrea, Bilbao Ekintzako Espezializazio adimendun unitateko arduraduna.

IVAP KIDEAK:

ROSA MARIA ARTOLA CARRERA, titular gisa, eta ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE GONZALO, ordezko gisa.

IDAZKARI 1:

JOSÉ IGNACIO RISUEÑO SERRANO jauna, Bilbao Ekintzako Lege eta Giza Baliabideen arduraduna eta, ordezko gisa, CARMEN FORTES MONTILLA andrea, Bilbao Ekintzako lege eta kontratazioko teknikaria.

Laugarrena.- Lehen oposizio-ariketa (1. zatia, gai-zerrenda orokorreko edukiei buruzko test moduko galdera-sorta, eta 2. zatia, epaimahaiak ausaz ateratzen dituen 6 gaien artean aukeratu beharreko 2 gairen idatzizko garapena, gai-zerrendako berariazko zatiari dagozkionak). Epaimahaiak **deialdian onartutako pertsona guztiei egin behar die deialdia:**

Inbertsioak erakartzeko teknikaria (ESP.: BE 2022-EST-0003) 2024ko apirilaren 18an, 09:30ean, BILBAO ARENA Kirol Jauregian, Askatasuna, 13 (Miribilla) 48003 Bilbon. NAN eta tinta beltz edo urdinezko boligrafoa aurkeztu beharko dira oposizio-faseko lehen ariketa egiteko. Ariketa derrigorrezkoa eta baztertzaila da.

Bosgarrena.- Onarpenen eta bazterketen behin betiko zerrendak onartzen dituen ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organo berari, hilabeteko epean da, edo, bestela, zuzenean inpugnatu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bilbon, 2024ko otsailaren 9a

XABIER IÑIGO OCHANDIANO MARTÍNEZ

Bilbao Ekintza EPELekeko presidentea

I. ERANSKINA
ESP. BE 2022-EST-0003
INBERTSIOAK ERAKARTZEKO TEKNIKARIA
 Barne-sustapeneko txanda/ Txanda irekia

Onartuen behin-betiko zerrenda

NAN *	Izen-abizenak
*60***06	BILBAO FERNANDEZ, OIHANE
*889***5	URRUTIBEASKOA EREÑAGA, JULEN
*608***0	EGILUZ MORENO, IRATI
*89***71	MARTIN VELASCO, ANDER
*2***376	GARCIA PEREZ, ALICIA
***0*991	EIZAGUIRRE ZABALA, XABIER
*6***096	SOROA GUENAGA, IXONE
*6***436	FERNANDEZ LAREDO, RAFAEL
*268*9**	VIARTOLA ZALDAINENA, JAVIER
*60***17	ITURRIOZ KARKOKLI, JON
*231***2	URIARTE TOTORIKAGUENA, AINHOA
*900***2	AMONDARAIN PALOMERO, JON
***0*152	ZUBIZARRETA BARRENETXEA, LEIRE
*63***68	GARCIA BARRENA, ESTELA
*066*8**	BIKANDI IRAZABAL, CRISTINA
***3*320	CASADO BASTIDA, ANDER
*904*5**	IBARRA SAINZ, LEIRE
*594*7**	GOITIA GOIZANE, GOIZANE
*06***78	RUIZ DURAN, JUAN MIGUEL
*894*9**	GUTIERREZ VENTURA, ALAIN
*89***39	ECHEVARRIA BILBAO, IMANOL
***4*215	RUEDA PEREZ, JUNE
***3*469	TORRES UGARTE, XABIER
*912***4	BETANZOS RETOLAZA, PAULE
*285***3	ELEXPURU ITURRI, ITXASO
*6***366	IRASTORZA GOMEZ, LEIRE
***5*326	ATUCHA ORUE ECHEBARRIA, ARAITZ

*8***037	BASAGUREN MENDIOLEA, GORKA
*609***9	PARRA FRANCO, TANIA

Baztertuen behin-betiko zerrenda

NAN *	Izen-abizenak	Arrazoia
*900*0**	ZUBILLAGA ORTEGA, ALBA	01

Baztertzearen gakoak

Kodea	Arrazoia
01	Eskatzen den titulua ez edukitzea

- NAN: Nortasun agiria. 4 digitu ezkututzen dira